



ttipi-ttapa

TOKI ROK

2012ko abuztuaren 9a | XXXII. urtea | 572. zenbakia

www.ttipi.net



Burricleta
bizikleta
elektrikoa
Bertizen

→ 6

TELEFONO GIDA 2012

Eskualdeko harpidedunek
jasoko dute ale honekin

ARANTZA → 9

Arantza Rock
abuztuaren 25ean

ZUBIETA → 14

80 urtetik gorakoak
omenduko dituzte

GOIZUETA → 16

Aimar Olaizola omen-
duko dute festetan

AMAIUR → 23

Artzain zakur lehiaketa
abuztuaren 15ean

Patxi IRIARTE *Mak* | Iruritako argazkilari eta urpekaria

«Itsas sakonean dena urdin eta berdekari ikusten da»

Ur azpian igeri egiteaz gain, lur gainean duen ofizioari segituz, ur azpiko irudi ikusgarriak ere biltzen ditu Mak Iriartek argazkian eta bideoan.

ERREPORTAJEA → 3-5





www.mueblesordoki.com

Plaza Zaharra, 27 | Erakusketa: Otsango industrialdea, 5 | LESAKA
T. 948 637 780 | e-posta: info@mueblesordoki.com



Haurrendako logela pertsonalizatuak

- SUKALDEAK -
- DEKORAZIO PROIEKTUAK -
- EGONGELAK -
- LOGELAK -
- ARMAIRU ENPOTRATUAK -
- ILUMINAZIOA -
- SOFAK -
- OSAGARRIAK



ONGI PASA BESTAKI

NATURA → Patxi IRIARTE URPEKARIAREKIN

«Itsasoak zikinkeria guztia irensten du eta ikusten ez denez...»

Euskal Herriko eta Mundu zabaleko itsasoetan irudi ederrak hartzen ditu iruritarrak

1964an sortu zen Iruritan Patxi *Mak* Iriarte argazkilaria. 18 urterekin hasi zen argazkilaritza ikasten eta azken 30 urtetan ofizio eta afizio hori lantzen eman du. Baina argazkilaritza 'konbentzionalaz' gain, bertze bereziago bat ere lantzen du, ur azpiko argazkilaritza. 1990ean hasi zen buzeatzen, «ikastaroa egin nuen, neskarekin, titulua ateratzeko, baina ordura arte, Hondarribiko Faroan egiten genuen lehenbiziko saioak. Afizio ikaragarria genuen. Orduan, titulua jende gutik ateratzen zuen, bonberoek-eta bakarrik, eta ikastaroa eta frogak arras gogorrak ziren».

Aitor AROTZENA

Ur azpian igeri egiteaz gain, lur gainean duen ofizioari segituz, ur azpiko irudi ikusgarriak ere biltzen ditu argazkian eta bideoan.

22 urte hauetan, noski, ekipamenduan aldaketak handiak izan dira, bai buzeo, bai argazki ekipoetan. Patxi Iriartek aipatu digunez, «duela 22 urte ekipamendua oso oso basikoazen, bai trajeak, kontrolatzeko aparailuak... neguan hotz ikaragarria pasatzen genuen, jantziak oinarri-oinarritzkoak zirelako. Gaur egun urpekari jantzi idorrekin buzeatzen dugu, arras teknikoak dira eta Kantauri itsasokoa bezalako ur hotzetan

atseginagoa egiten dute buzeoa. Kontrol aparailuak ere sofisticatuak dira orai (sakonera kontrolatzeko, karga kopurua, aire nahasketa, etabar...) eta orai buzeoa ziurragoa da. Argazki kamerei dagokionez, hasieran urpeko kamera bat izaten zen bakarrik eta orain edozein argazki edo bideo makina sakonera handira eramatera posible egiten duten karkasak daude».

Azkeneko moda, aunitz erabiltzen den Gopro Hero kamera omen da. «Neurri tiki-ttikiko kamera digitala da—dio Iriartek—kalitate handiko argazki eta bideoak egiten dituen eta erabileran anitz dituen, arrisku-kirole-

tan eta aunitz erabiltzen da. Osagarri aunitz ditu eta edozein azaleran kontzeko moduko euskarriak ditu. Nik urpekari-tzarako karkasa berezi batekin erabiltzen dut. Reflex kameraren karkasara engantxatzen dut (arras deigarria da, flashak kontzen dituzten besoengatik) eta murgil-

ESALDIA

«Itsas sakonean dena urdin edo berdekari ikusten da eta argazkiak ateratzeko nahitaezkoa da flash edo argi foko bat»

Patxi IRIARTE
Urpekaria eta argazkilaria

tze berean hainbat bideo eta argazki formato lortzen ahal ditut».

Txapelketetan ere aurkeztu ditu Patxi Iriartek bere bideo eta argazkiak eta sariak ere irabaziak ditu. Nafarroako urpeko argazkilaritza lehiaketara urtero aurkeztu ditu bere lanak eta irabazi duen urteetan Nafarroa ordezkatu du Espainiako txapelketan. «Urteren batean Donostiako urpeko zine Festivalan ere aurkeztu ditut nere lanak, argazki muntaia sailean. Maila handia izaten da, baina noizbait emaitza onak lortu ditut», aipatu digu argazkilaria.

Iriarteren ustez, buzeatzeko oinarritzko eki-

poak urpeko jantzia, aletak, guanteak, txalekoa, erregulatzailea, betaurrekoak eta eskumuturreko ordenagailua izan behar ditu, botilak eta berunak buzeo zentroetan alokatzen direla kontuan hartuz. Urpeko argazkilaritza egiteko, berriaz, marka guztiek dituzten urperako karkasaz gain, flasha ere nahitaezkoa da, «sakonera ez baitira koloreak bereizten argi gehigarrik gabe (flasha, foko...). Argi naturalarekin, ur sakonean dena urdin eta berde tonotan ikusten da». Hainbertze tramankulurekin afizio garestia ote den galdegin diogu iruritarrari. «Egia da ekipoan inbertitu be-



Manta-raia Sangalakin, Indonesian


ARGAZKIA: PATXI IRIARTE

har dela, baina pixkana-ka egiten ahal da eta ongi zainduz gero, urte aunitzetarako ekipoa dauka-gu».


«BALE-MARRAZOA IZAN DA NERE TOPAKETARIK IKUSGARRIENA»

Hogei urte baino gehiago daramazki urpean igerian eta urpekari batek izan dezakeen topaketarik ikusgarriena bale-marrazoarena dela uste du, «10-12 metro luze izan dezaketen zenbait marrazo heldu ikusteko aukera izan genuen Ekuadorko Galapago uharteeta iparraldean». Baina, Fidji edo Papua Ginea Berria ere ikusgarriak direla dio: «neurri ttikiko fauna eta paisaiak ikusgarriak dira, Fidjin zezen-marrazo eta tigre-marrazoekin buzeatu genuen, eta ikusgarriak dira hango koral-basoak, ikusgarriak eta ongi kontserbatuak; Galapagoetan mailu-marrazoak eta bale-marrazoak ikusten dituzu...». Eta oraindik ikusi gabeko itsas animalien zerrenda «amalgabea» litzatekeela, «baina dudarik gabe, Nautylusa, eraztun ur-


Mak-en argazki-koaderno



Papua Ginea Berriko arrantzalea



Galateak Hondarribian



Itsas otsokumea Galapagos uharteetan



Bale-marrazoarekin igerian Galapagos

dineko olagarroa, itsas krokodiloa edo nere argazkietan falta diren

marrazoak», aipatu digu. Denbora honetan nabarmen beheiti egin

omen du itsas azpian ikus daitezkeen animalien kopurua, «alde ba-

Patxi MAK IRIARTE, URPEKARIA ETA ARGAZKILARIA

«Itsasoa ongi ezagutzen dute arrantzaleek, baina zaintzeko orduan ez dakit...»

Munduko hainbat itsaso ezagututa, nola ikusten duzu Euskal Herrikoa?


Presio handia bada. Arrantza modu artesanala egiten dela erraten dute, baina batzuk legala eta bertze batzuk ilegalak ere egiten dute. Gero, Gipuzkoa eta Bizkai-ko jendeaz gain, Nafarroa osokoa ere gaten da arrantzara, bat kainaberarekin, bertzea pistolarekin, hura bere itsasontzi ttikiarekin. Kontsumismoaren ondorioz aunitz igo da kirol hori eta Iruñeko pijo guztiek, denek nahi zuten. Guk *ondoebasleak* erraten diegu gipuzkoarrei, baina igual xuxenagoa izanen zen eurek nafarrei *olagarroebasleak* deitzea. Erre-serbatxoak egitea izan daiteke soluzioa,

baina arrantzale kofradia gehienak kontra daude. Itsasoa goitik behera ezagutzen dutela diote, eta seguruenik hala izanen da, baina zaintzeko ez dakit horrenbertze ezagutzen duten...

Gure inguruan arrain eta itsas espezie ikusgarriak ere topa daitezke?

Beharbada ikusgarriena ataloa da, ilargi-arraina eta hori ikustera espreski etortzen da jendea kanpotik. Bitxia da baina Getaria aldean aunitz ikusten da. Horretaz gain, isopodoak daude, halako krustazeei ttiki batzuk dira eta kaparrak bezala itsasten zaizkie arrainei. Azalean handitzen dira eta umeak ere bertan izaten dituzte.





urteetan



apagos uharteetan

COUSTEAU AITZINDARI

«Elizondoko zinean *Tiburón* eta *Abismo* pelikulak ikusita sartu zitzaidan itsas azpia ezagutzeko txirrinta, baina haiek fikzio hutsa ziren. Gero, Cousteuren dokumentalek ireki zizkidaten begiak. Hura izan zen aitzindaria urpeko dokumentaletan eta hura hasi zen itsasoa zaindu behar zela erraten, bioaniztasun jasangarria bilatzen...».

BAHAMAS AMETS

«Bizi ditugun garaiak zailak badira ere, hurrengo bidaia Bahamasera egitea gustatuko litzaidake, tigre-marrazoa, limoi-marrazoa eta mailu-marrazo erraldoia dokumentatzeko tokirik onena delako».

etik itsas eta espezie guztiak agortzen dituen gehiegizko arrantzarengatik, itsas hondoa suntsitzen duten sistemak erabiltzen baitira oraino, baina baita kutsadurarengatik ere. Itsasoak dena irensten du eta ikusten ez denez... Sinestezina da zenbat zikinkeriarekin egiten ahal duzun topo, ikusten ez dena kontatugabe, noski. Klima aldaketa ere hor dago, zenbait itsasotan, tenperatura igoeraren ondorioz izan diren korronte aldaketak hilgarriak izaten ari baitira espezie aunitzentzat».

Zenbait herrialdetan, tokiko gobernuek itsasoa hobeki zaintzeko aitzakia izaten da urpekaritzaren afizioa, turismoa mota indartsua izan

baitaiteke itsasoa egoera onean baldin badago. Patxi Iriartek jakinarazi digunez, «gobernu batzuk bere kostaldeen zati garrantzitsuek babestu eta turismoa eta arrantza mota tradizionala bateragarriak izateko moduan kudeatzen dituzte. Fidjira egin genuen azken bidaian estazio biologiko batean buzeatu genuen. Han arrantzaleak metodo tradizionalak eta jasangarriak erabiltzen dituzte, ez zituzten marrazoak arrantzatzen, baina urpekari bakoiak sortzen duen irabazien zati bat eramaten zuten. Urpekariak garraiatzen ere ibiltzen ziren bere txalupetan. Baina, zoritxarrez, hori ez da toki aunitzetan gertatzen».

ZINEAREN ERAGINA NATURAREN IKUSMOLDEAN



ARGAZKIAK: PATXI IRIARTE


Marrazo puntta beltza Fidji uharteetan. Behean, pailazo-arraina

Marrazoenganako beldurra areagotu zuen Tiburón-ek eta pailazo-arrainak desagertze bidean utzi ditu Nemok

A. AROTZENA

Marrazo eta gisako itsas animalien artean igeri egiteak arrisku punttu bat ez ote duen erran diogunean, Iriarte ez dago sobera konforme. «Arriskurik handiena—dio—kontrolatzen ez duzun inguru batean zaudela da eta hutsegia dezakeen teknologia baten menpe zaudela. Konfidantza sobera izatea eta bikoterik gabe buzeatzea arras arriskutsua da. Marrazoa berez ez da arriskutsua, baina bere errakzioak kontuan hartu behar dira (territorioa, ehiza eremuak, estalketa garaiak...). Marrazorik handienek tikiagoak edo baita bere espezieko marrazo gazteak ere jaten dituzte. Baina denak sarraskijaleak dira eta orokorrean, ahulenak direnak edo bere eremuan topatzen dituzten galdutako espezieak jaten dituzte... eta hor, azalera ateratzen direnean, gizakiekin zorigaitzeko topaketak izan daitezke. Egia da arazorik gabe hiltzen ahal zaituela, baina normalean guregandik ihes egiten dute». Alde horretatik, *Tiburón* filmak kalte handia egin duela uste du Iriartek.

Baina marrazoa gizakiarentzat baino, hagitzez arriskutsuagoa omen da gizakia marrazoarentzat. Iriartek dioenez, «berak jaten dituen arrainen elikagai-oinarri guztia errausten ari gara eta hori gutti baltitz, babes-tuak egon edo ez, estatu espainia-



rra marrazo-hegalen Europako esportatzaileak handiena da. Arau guztiak hautsiz, dena errausten da eta gero, aitzakia bezala, harrapaketak istripuak izan direla erraten da. Eta honetan, zoritxarrez, euskal arrantzaleak ere berteen parean daude, palangrea erabiliz arrantzarako, hau da, ur gaineko amuak jarritz».

Zineak bertze ondorioak ere utzi ditu itsasoan. *Finding Nemo* (Nemoren bila) marrazki bizidun filmaren arrakastaren ondorioz, Estatu Batuetako haur gehienek halako arraintxo bat nahi izan zuten etxean. «24 pailazo-arrain mota daude eta preziskiki hori, Nemoren espeziekoa, desagertze bidean dago orai Indonesian», dio Iriartek.



Nire txanda
Zuriñe ZUBILLAGA

Interpreta ezazu

Interpreta ezazu zeure erara. Nola sentitzen zara gaur? Zeintzuk dira burura datozkizun oroitzenak? Zein esperientzia mota bizi izan duzu zeure bizian? Horietaiko zeinekin lotuko bihurtu duzu gertakaria subjektibo. Hartu eta eraldatu duzu. Zeure egitura mentalean sartu eta estetika zentroa bailitzan, kirurgia estetikoa burutu diozu. Batzuk bertatik zertxobait atonduak ateraren bitartean, besteak guztiz eraldaturik ater dira. Eraldaketa osten, garunean bidaia den hori plazaratu duzu zeure ekintzarekin. Norbaiten besoetara egin du salto interpretazio berri baten bila. Ezin distantzia mantendu, proiektzioz beteriko interpretazio nahasmena. Norberaren subjektibotasuna errespetatu ezin, besteak ere bere subjektibotasuna du eta. Batzuetan, onik aterako zara zurrumbilo horretatik; beste batzuetan ordea, bilatu ez duzun guda baten erdian topatuko duzu zeure burua.

«Jaso orduko bihurtu duzu gertakaria subjektibo. Hartu eta eraldatu duzu»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Esklusiba gurea da!

Zenbat egunkaritan irakurri, telebistetan edo sare sozialetan ikusi eta irratietan aditu duzu aurtengo Frantziako Tourra Wiggins-ek irabazi duela? Edo Espainiako Arriskuaren lehengusinak errekor guztiak gainditu dituela? Aldiz, non leitu duzu Elgorriagako herri sarrerako iturria itxuraberritu dutela? Edo, 32 urteren ondoren, Goizuetako Goiz Argi taberna itxi dutela? Esklusiba gurea da!

Nabarmentzekoak




Andres ZELAIETA
Burrikletaren aurkezpena

Burrikletak bere ibilerari ekin dio Oronoz-Mugairin eta igantziarrak egin zuen euskarazko aurkezpena. Bizikleta elektrikoak alokatzen dituzte, eskualdean barrena ibilaldiak egiteko.



Miguel DE LA QUADRA
Urdazubini hizlari

Bere garaian abenturale famatua izan zenak so-lasaldia eskainiko du hilaren 11ko Urdazubiko Burdinaren Egunean, monastegian. Bertze hainbat ekitaldi izanen dira egun horretan.



Manuel GANBOA
La Indurain-en irabazle

Txirrindulari elgorriagarra nagusitu zen La Indurain probako ibilbide luzean, hamar laguneko sprintean irabaziz. Denera 1.681 txirrindulari atera ziren Beran uztailaren 21ean.

Atzera begira → 2000.08.10 / TTIPI-TTAPA 284. zbk • Lurra 19 zbk.



Ollingo mehategiaren historia ezagutzen Lurra aldizkarian

2000. urtean 25 urte bete ziren Ollingo mehategia itxi zenetik. Aitzaki hori hartuta, lehengo mehatzariei buruzko zenbait artikulu argitaratu ziren Lurra aldizkarian. Ollin Ezkurako eremuan dago, Goizuetatik 4 kilometroa, Leitzara doan kamio bazterrean. M^a Angeles San Miguel langile ohiak aipatu zigunez, «lehenbizian langile asko aritzen ziren, goizuetarrak asko, eta kanpotarrak beste hainbeste edo gehiago. Cacereskoak, Extremadurakoak, Portugalekoak... goizuetar neska asko dago hangoekin espotuta». Joxe Loiarde Txispasek zioenez, «buzoa, kaskoa, kandila eta esponja txar bat ahoko ematen ziguten».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduezteta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebrea, Martin Larraide, Juan Mari Barriola.

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztexea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitzua, Goizuetak, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea

2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	38€	Europa	56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	32€
Ipar Euskal Herria	56€	Amerika eta Australia	124€	Leitzua	16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



ABUZTUko bestak 2012

abuztuaren 14tik irailaren 3ra



atera **uda**
zukua
zoragarriari

mollorco 8-10mm / 3/8" mm

R. S. S.

Mastering Excel

332€

tenerife 8.00000 / 19.00000

H. Chemistry 2700

Chlorine, ethyl

377€

punta cana in season / 3 days

H. Matura Park 00000000

Discussion

886€

INFORMAZIONE E TERAPIA


Estagosa 22, Bahia: 31780 BERA, Navarra Tel. 948.631.388 E-mail: bern.1255@viajesibaria.com

[illegible]

Ahora Viajes Iberia en

902 108 108 | wibovlajes.com





10:00 Argisoinuak herriko musikariekin. **11:30** Entziero titika eta buru-haundiak. **14:00** Haurren bazkaria. **16:00** Haurrentzako puzgarriak frontoian. **17:00** Plater tiraketa Usua Ehiztari Elkartearen eskutik. **18:00** Haurrentzako tailerrak. **19:00** Bertso saioa. Beñat Gaztelu-



ARANTZAKO UDALAK
 besta onak opa dirikiose arantzaz eta baitari gustuei



EGITARAUA

Abuztuak 14 asteartea

19:45 Agerraldi ixila 'Euskal Presoak Euskal Herrirat' lemapean. **20:00** Altxaferua, txistu-lariak, trikitilariak, txaranga EGHOAK, buruhaundiak eta kankailuak. Txanpaina, goxoki eta globoak banatuko dira. **21:30** Afaria frontonean. Txartelak hartzeko epea abuztuaren 10ean akautuko da. Txartelak 20 euro balio du. Epez kanpo 5 euro gehiago ordaindu beharko da. Afaria txarangak girotuko du. **00:00-04:00** Dantzaldia MODESTOrekin. EGHOAK txarangak atsedendian karrikak animatuko ditu.

Abuztuak 15 asteazkena ANDREMARI EGUNA

10:30 Argisoinuak musikari, buruhaundi eta kankailuekin. **11:30** Meza Nagusia. **12:30** Herriko dantzarien saioa. **Ondotik** Kultur Etxean hamaiketako dantzari eta musikarientzat. **13:30** gaiteroak plazan. **18:00** Aizkora apostua. Larretxea aita-semeak, Arrospide-Erasun. **18:45** Aizkora buruz behera: Joxe Bikondoa. Herri Kirol Federazioak antolatua. **19:00** Mari-atxiak: Roberto eta Jessi. **20:00-22:00 eta 00:00-04:00** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

Abuztuak 16 osteguna HAURREN EGUNA

10:00 Argisoinuak gaitero, buruhaundi eta kankailuekin. **11:00-13:30** Haurrendako joku parkea eta tren txutxua. **13:30** Asau tiki. Txartelak hartzeko epea abuztuaren 11n bukatuko da: 9 euro. Epez kanpo 5 euro gehiago ordaindu beharko da. Guraso Elkarteak antolatua. **15:00-17:30** Haurrendako joku parkea. **17:00** XX. Mus Txapelketa. Sariak kirol desafioaren ondotik banatuko dira. **19:00** Herriko gazteen herri kirol desafioa. Aurten ere herriko bi talde lehiatuko dira. **20:00-22:00 eta 00:00-03:00** Dantzaldia GABENARA taldearekin.

Abuztuak 17 ostirala

10:30 Argisoinuak gaitero, buruhaundi eta kankailuekin. **11:00** Etxalarko haurren XXVI. esku pilota txapelketaren finala. **12:30** Gazteen arteko pilota partidak binaka. Sari banaketa. **18:00-20:00** SALTOKA taldearen animazioa. Zahar eta gazte, denak dantzan trebe!! **20:00-22:00 eta 00:00-03:00** Dantzaldia DANTZADI taldearekin.

Abuztuak 18 larunbata ASAU ETA JUBILATUEN EGUNA

10:30 Argisoinuak gaitero, buruhaundi eta kankailuekin. **11:00** Herriko trikitilarien saioa. Ondotik luntxa. **12:00** Bertso saioa: Julio Soto eta Jexux Mari Irazu. **14:00** Jubilatuen bazkaria. **14:00** Asau ermitako zelaian. Plaza ingurutik EGHOAK txarangarekin abiatuko dira ermitako zelairat. Txartelak 20 eurotan hartzeko epea abuztuaren 14ean akautuko da. Epez kanpo 5 euro gehiago. Buelta landatan barna izanen da. **20:00-22:00 eta 00:00-03:00** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin. Etxalarko gaztik antolatua eta ordaindua.





Maite IRISARRI | Etxalarko Kultur zinegotzia

«Besten aurrekontua %20 jaustea lortu dugu, etxalartarrek borondatea erakutsi dutelako»

Sortzez Gososta baserrikoa den Maite Irisarri Babaze, 3 seme-alaben ama eta azkeneko legealdian, kulturako zinegotzia da. Etxalarko besten antolaketan buru-belarri ibili da. Aurrekontuari dagokionez, **«joan den urtean eta aurten bereziki, egoera ekonomiko zaila dela eta, saiatu gara ahal den neurrian, presupuesto hori jausten, izan ere %20, gutxi gora behera, jaustea lortu dugu»**, aipatu digu. Hori bi aldetara lortzen ahal dela ere erran digu, **«lana aunitz eginez udaletik, prezio eta kalitate hoberenak begiratu eta lortzeko aktuzio guztietan eta, batez ere, jendearen borondatearekin: hainbat eta hainbat gazte daude bestetan (txistularik, trikitilarik, pilotarik, herri kirolarik, ...), lana beraien borondatez egiten dituztenak eta noski aintzineraz ederki eramaten dituztenak»**. Horregatik aurtan, herriaren alde lan egin duen norbaitek txupinazoa botatzea gustatuko litzaioke, **«bizpahiru aukera aztertzen ari gara, baina oraingoz ez dago erabakia nork piztuko duen lehen suziria»**. Aurtengo programan aldaketa nagusia hilaren 18ko musikaren kontua dela erran digu Irisarrik, **«gazteek beraien borondatea agertu zutelako, bai gau hori antolatzeko eta ordaintzeko ere. Aipatu ere, Pilota eta Mus txapelketako sariak, partiden ondotik banatuko direla, ez bertze egun batean, egoki-agoa iruditzen zaigulako. Gainera guztia, betiko ildo beretik segitzen saiatu gara»**. Herriko Etxean sartua zaudenean bestak hagitx ezberdin ikusten direla ere onartu du, **«erresponsabilitate guztia zure gain dago, dena ongi kontrolatzen saiatu behar duzu, gauzak behar diren bezala ateratzeko, 'tentsio' puntu batekin pasatzen dituzu besta guztiak...»**. Maiteri pertsonalki, bestetan gehien gustatzen zaiona, dudarik gabe, **«Amabirgin eguneko dantzarien saioa eta herri kirol desafioa»** dira, baina bertze guziaz ere aunitz gustatzen zaio, **«aukera ematen duelako adin guztietako jendeak ongi pasatzeko»**. Ama denetik besta bizitzeko modua aunitz aldatu zaiola onartzen du, **«batzutan besta egiteko txirrinta hori sartzen zait, klaro, baina hurrengo goizean, 07:30 aldera, gure 'diana' partikularra haiten denean... pentsatze hutsarekin joaten zaizkit gogoak (ja, ja) behin umeak izanda, bertze obligazio batzuk dituzu, guraso bezala eta neretzat, bi gauzak ez dira konpatibleak, ez tikiak direlikan behintzat»**.




ARROSAMENA zurgindegia

Zurgin lanak

BESTA ONAK PASA ITZAZUE!

948 63 51 44 • ETXALAR





ELUTSA

TABAKOAK

BESTA ONAK
PASA ITZAZUE!

Tfnoa: 948 635 191 • ETXALAR



IRIBARREN
zurgindegia

Fabrikazio propioa

LEIHOAK "CE" zertifikazioarekin
kontraleihoak, larimak, atsek...
Zurgin lanak orokorrean

ONGI PASA BESTAK!!!

Tfnoa: 948 635 071 • ETXALAR



Santiago 83 B bajo
31700 Elizondo
T 948 581 907

www.precocinadosesarte.com



KOXKONTA *Jatetxea*

*Figueras eta ziteburua berriak,
herri, zahar eta berriak,
jauziak eta berriak...*

T. 948 627 519 • 948 627 903 • 689 801 657
Otsango-aurzoa, 1 • **LESAKA**

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

Tel: 945 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

- Melamina taulak
- Taula hidrofoeak (uretik babesteko)
- Txapaz estaltzeko taulak
- Entzimerak
- Ata amuntak eta sukalde mobilendakosi
- Pintura eta berrizak
- Bainurako motileak eta osagarriak
- KIT motileak, esku-erremintak, etab...

GOENERRIKO GIZTELURAKO UDELAK

**Besta zoriontsuak
opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei**

DONAMARIAKO bestak 2012

EGITARAUA

Abuztuak 14 asteartea **BEZPERA**

20:00 Txupinazoa eta kalejira herriko musikari eta buruhandiekin. **21:00** Zopak Herriko Ostatuan. **00:00** DJ Julenekin dantzaldia.

Abuztuak 15 asteazkena **AMABIRJINAREN EGUNA**

10:00 Kalejira gaiteroekin auzoz-auzo. **11:00** Meza Nagusia. **12:00** Herriko dantzarien emeraldia. **12:30** Luntxa Herriko Ostatuan. **18:00** Kantaldia herriko plazan. **19:30** Herri lehiaketak: txapel tiraketa eta magraren pisua asmatzea. **Arratsalde eta gauz** dantzaldia FIDELekin.

Abuztuak 16 osteguna

11:00 Haur joko herrikoia. **13:00** Aizkora apustua: Donato Larretxea-Oihan Larretxea / Olasagasti-Ander Erasun. **14:00** Paellada parkean. **18:00** Pilota partidak herriko gazteen artean. **19:00** Bertso-pilota. Bertsolariak: Julen Zelaieta-Julio Soto. Pilotariak: Goñi-Goñi, Zelaieta-Berearen kontra. **22:00** Bertso afaria Herriko Ostatuan Julio Soto eta Julen Zelaietarekin. **Arratsalde eta gauz** dantzaldia MENDIBERRIekin.

Abuztuak 17 ortzirala

Goizez eta arratsalde haurren parkea plazan. **11:00** plater tiraketa. **17:00** Mus tximista Herriko Ostatuan. **18:00** Txokolatada. **20:00** Patata Tortilla lehiaketa. **22:00** Kantu zahar herrikoia plazan. **Arratsalde eta gauz** dantzaldia MENDIBERRIekin.

Abuztuak 18 larunbata

14:00 Herri bazkaria. Bertsolariak: Jon Maia eta Aitor Mendiluze. Akordiolaria: Bixente. **Arratsalde eta gauz** dantzaldia GARRAXI taldearekin.





Mikel ARREGI | Donamariako alkatea

«Urtean zehar zaila izaten da lagunekin elkartzea eta bestetan hori lortzen da»

2011ko maiatzean ez zen inor aurkeztu Donamariako udal hauteskundeetan, baina urte hondarrerako, lagun talde bat bildu zen, Herriko Etxeko kontuak eramateko. Horien buru Mikel Arregi da, alkate berria. 8-9 hilabete daramazki karguan eta balorazio ona egiten du, **«herria egoera oso onean hartu dugu, aurreko udalak lan asko egin zuelako eta konten nago daukagun udal taldearekin»**. Egunerokoan, orain ez duela kasik denbora librerik erran digu Arregik, baina alkate bezala lehen bestak izanen dituen hauetan, ez omen zaio sobera aldatuko bestak bizitzeko modua: **«Orain ez naiz kiosko gainera goratuko mikrofonotik kantatzera (broma da!). Bestak berdin berdin segituko dute niretzat»**. Udala eta gazteen artean bilerak egiten dituzte bestak antolatzeko, **«lehenengo bilera otsaila-martxoa aldera egiten dugu eta gero udaberrian gehiago»** erran digu alkateak. Bestetan gehien gustatzen zaiona **«lagunekin eta herritarrekin egotea»** da, **«urte osoan zaila izaten delako denak elkartzea, eta bestetan hori lortzen delako»**. Gaua edo eguna aukeran emanda, **«eguna»** nahiago duela aipatu digu Mikel Arregik, eta bestetako aurrekontuan ez dela aldaketa handirik, **«urtero bezalakoa, ez gehiago eta ez guttiago»**. Alde horretatik, beste dagokienez ez omen dute krisia sobera somatu Donamarian, **«egunak mantendu ditugu eta egitaraua antzekoa da»**. Beraz, berrikuntza handiegirik ere ez da izanen baina zerbait aipatzerakoan, **«berrikuntzetako bat, gazteen egunekoa da, paellada bat antolatuko dugu bazkaltzeko eta arratsaldean 'bertso-pilota'»**. Abuztuaren 15 inguruan Amabirjin bestetan murgilduak izaten dira eskualdeko eta Euskal Herriko herri aunitz, baina Donamariakoek izaten dute bere berezitasuna, alkateak aipatu digunez: **«Herri bazkaria egiten dugun egunean, bazkalondoan, bertsolariekin monjengana joaten gara, eta han bertsotan eta kantari aritzen gara monjekin (komentuan)»**. Txupinazoa zeinek bo-
ta, hori ez omen diote inportantzi handiegirik ematen eta horregatik, **«txupinazoa edozeinek botako du, ez dugu erabaki, ez dauka -lako garrantzirik»**. Beraz, bestak nork hasiko dituen begiratu gabe, Donamaria-ra hurbiltzeko eta herritarrekin batera ongi pasa -tzeko gonbitea egin du Mikel Arregi alkateak.



F. LANCHAS
Alubizakarek eta berriztatzaileak
Parruko eta perko fortasapala
Jartzea
Marta guttiatze solai
Tel: 948 630 736 - M: 607 406 704

DONAMARIKO
Ostatua
Bokatak, plater konbinatuak
bazkariak eta afariak
Plaza - Tlfon: 948 456 127 - DONAMARIA

TXARUTA, S.L.
Iturgintza - Berokuntza - Gasa
ongi pasa bestak!
948 45 17 28 - 659 77 00 15
GAZTELU

Aliprox
T: 948 456 152
Kontingenteak: 8
Tlf 40 DONEZTIBI
matsiberna_alimentacion@hotmail.com
ongi pasa bestak

ERRANDONEA
OSTATUA

BESTETAN
GIRO
PAREGABEA

948 450 216 • ZUBIETA

ARRATE EITETIKAZ ZENTROA

ARMATUAK
• System dermatologic
• Maria Dillard 60€/48€
• Marikuna Irunkorra 30€
• Peltikuna Irunkorra 35€
• Marikak kontsultak 48€

ESKATU PREZIDEN ZERRENDIA
0911 999 100

Farmakia, 18 | DON ESTEBE (Naharroa) | 948 450 236

MADERAS
SANTESTEBAN

Mendi lanak
Chubas erosten eta
Bisak
Montaje ibaien
Talladura egiturak
Bis. talladura egiturak eta ibaien
Osagariak
Autodiseño indamendua

Amara jomaka | ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasintesteban.com

ZUBIETAKO UDALA (NAHARRON)

Definitioa
Batasunaren
gizartearen
populazioa
dendak

ZUBIETAKO bestak 2012

EGITARAUA

Abuztuak 14 asteartea **BEZPERA**

20:00 Herriko Txistulariak. **21:30** Zopa handiak Herriko Ostatuan eta Errandonean. **00:00** arbola altxatzea eta joaldunen ibilaldia. **Ondoren** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearen eskutik.

Abuztuak 15 asteazkena **AMABIRJINAREN EGUNA**

08:00 diana. **11:00** Meza Nagusia. Meza ondoren, txistulariak eta Zubietako joaldunak. **12:00** Aizkora apustua: Jaunarena eta Loiarate, Mindegia aita-semeen kontra. **18:00** Ibiltza taldeko dantzarien saioa. **Arratsaldean eta gauetan** dantzaldia ASTIAZARANANAIK taldearekin.

Abuztuak 16 ortzeguna **HAURREN EGUNA**

08:00 diana. **Egunean zehar** haurrendako puzgarriak. **10:00** haurrentzako betiko JOKOAK **Eguerdian** haurrentzako bazkaria. **16:00** mus txapelketa. **16:30** haurrentzako ikuskizuna. **18:30** haurrentzako ginkana. **Arratsaldean eta gauetan** dantzaldia BIXENTE akordeolariarekin.

Abuztuak 17 ortziralda

Goizean goiz diana. **Egunean zehar** haurrentzako puzgarriak. **10:00** haurren pilota partidak. **12:00** Futbitoia (helduak). **17:00** Plater tiraketa herriarrentzat. **17:00** Patata Tortilla lehiaketa, ondoren berendua. **Arratsaldean eta gauetan** dantzaldia AIERRIK taldearekin.

Abuztuak 18 larunbata

08:00 diana. **Egunean zehar** Haurrentzako puzgarriak. **11:00** Meza, herriko adinduen omenez. **12:00** 80 urtetik goitikoei omenaldia. Aurrekua eta jauziak (Muxikoak). **13:00** herduen arteko pilota txapelketako finalak. **14:00** Bertso bazkaria (80 urtetik goitikoak do-hainik). Ondotik herriari buelta. **17:00** haurrentzako futbitoia. **Arratsaldean eta gauetan** dantzaldia GABENARA taldearekin. **02:30** arbola botatzea, beste bukaera emanez.



EGITARAUA

Abuztuak 14 asteartea **BEZPERA**

21:00 Herri afaria, JOXE ANGEL akordeoilariarekin.

Abuztuak 15 asteazkena **AMABIRJINAREN EGUNA**

10:00 argi soinuak. **12:00** Meza Nagusia. **13:00** Aizkora apustua I.Vicente-J.Etxeberria-M.Zabaleta. **18:00** pilota partiduak. **Arratsaldezt eta gauez** dantzaldia ZESUMA taldearekin.

Abuztuak 16 osteguna

10:00 argi soinuak. **18:00** pilota partiduak. **Arratsaldezt eta gauez** dantzaldia ZESUMA taldearekin.

Abuztuak 17 ostirala

10:00 argi soinuak. **11:00** Mus txapelketa. **16:00** Mus txapelketa (final erdiak eta finala). **18:00** Herri kirolak (gazteen artean). **Arratsaldezt eta gauez** dantzaldia GABEZIN taldearekin.

Abuztuak 18 larunbata

10:00 argi soinuak. **Goiz eta arratsaldezt** umeen parkea. **18:00** aizkora apustua. A. Erasun eta M. Telletxea, O. Larretxea eta Saralegiren kontra. **Arratsaldezt eta gauez** dantzaldia DANTZADI taldearekin.

Abuztuak 19 igandea

10:00 argi soinuak. **14:00** herri bazkaria JOXE ANGEL akordeoilariarekin (Herriko jubila-tuek dohain)




EZKURRAKO UDALAK
Besta zoriontsuak
opa dikeizue
herriar eta herriari
guztieri

EZKAIN eraikuntzak S.L.



ongi pasa
bestak!!

Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.com


Hostal Euzkumak

EZKURRA HOSTAL EUZKUMAK
JATETXEA • TABERNA
PARRILLA • TERRAZA
OTORDUA

José Luis Garmendia • BARRIAVEGA
www.hostaleuzkuma.com • info@hostaleuzkuma.com



Nagusia, 4 • EZKURRA • 948 615 080




LOHITZYNE
eraikuntzak

ETXEAK, TEILATUAK eta
ERAIKUNTZAK OROKORREAN

ONGI PASA HERRIKO BESTAK!

Tfnoa: 948 615 110
Mug: 699 461 386
Eguzkialde etxea
31749 EZKURRA



GOIZUETA bestak 2012

EGITARAUA

Abuztuak 12 igandea HAURREN EGUNA

12:00 Aurorak. **09:30** Diana, IRUMAITA umeen txarangarekin. **11:00** Meza. **12:30** pilota partidak (umeak). **14:00** umeen bazkaria ikastolan. **17:00** Lasturko zezenak eta ponyak. **18:00** haurrentzako berendua. **18:30** espuma festa (ELURRI txaboia). Ondoren disko-festa DJ TXOKOrekin.

Abuztuak 14 asteartea GAZTE EGUNA

12:00 Txupinazoa. Erraldoiak eta buruhandiak, trikitilarekin batera ibilaldia egingen dute Txinotik. Gero Brindisa txoznan. **14:30** Gazte bazkaria. **17:30** 'desafiazank' ruta tabernitiko. **18:00** Zezenak. **19:30** peñaren irteera. **20:00** Gaztetxeko txupinazoa. **00:00** Dantzaldia GABEZIN taldearekin. Ondoren txaranga.

Abuztuak 15 asteazkena AMABIRJINAREN EGUNA

08:00 Entzierroa. **10:30** Meza, gaitero eta dantzarekin. **12:30** Aimarren omenaldia. Afizionatuen arteko pilota partidak eta umeen partida bat. **13:00** erraldoiak eta buruhandiak. **18:00** Lasturko zezenak. **19:30** bertso saioa gai librean: Sebastian Lizaso, Julio Soto eta Iker Zubeldia. **22:00** afari herrikoia Umore Ona elkarte. **22:00-02:00** Dantzaldia BIDE BATEZ taldearekin. **01:00** kalejira IGANDEA txarangarekin. **03:00** txaranga.





Abuztuak 16 osteguna **SAGARDO EGUNA**

11:00-14:00 puzgarriak. **11:30** Toka. **12:00** Sagardo dastaketa. **16:00-18:00** Puzgarriak, segidan napolitanak banatuko dirak. **16:00** Mus Txapelketa Iskibin. **18:00** zezenak. **19:30** Aspeko profesionalen arteko pilota partida: Apezetxea-Peñagarikano / Mendizabal III-Cecilio.Gero, afizionatu mailako lau terdiaren barreneko pilota partida. **22:00-02:00** dantzaldia GABEZIN taldearekin. **02:00-04:00** karaokea Gaztetxean. **03:00** Txaranga.

Abuztuak 17 ostirala

11:00-12:00 Buruhaundi eta erraldoiak. **12:00** Lehiaketarako prestakuntza (bakailoa) sagardoa. **13:00** Lehiaketarako epaimahaia. **13:30** Txaranga. **18:00** Umore Onako dantzarien saioa. **Ondoren 22:00 arte** berbena LAIOTZ taldearekin (1. emanaldia). **00:00** berbena LAIOTZ taldearekin (2. emanaldia). **Ondoren** txaranga.

Abuztuak 18 larunbata **PEÑAREN EGUNA**

